DONOSTIAKO XXIII. 15Klasikoa,
2019ko ARAUDIA . ROLLER

1. ARTIKULUA - EGUNA ETA ORDUA

Gipuzkoako Atletismo Federazioak (GAF) Fly Groupekin batera, Donostiako **XXIII 15Klasikoa antolatuko du 2019ko urriaren 20ean.**

09h40 5K

09h55 Roller

10h30 10k

10h40 Gurpil-aulkian eta handbike-ean

11h00 15K

Hirian zehar izango da ibilbidea, 15 kilometrokoa, eta oso-osorik RFEA eta GAFeko epaile zirkuito homologatzaileek neurtua izango da 15km-ko distantziarekin. Denbora muga 1 ordu izango da.

2. ARTIKULUA- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Lasterketa honetan edozeinek parte har dezake, edozein kategoria, sexu edota herrialdekoa izanik, federatua izan edo ez, eta 2001.urtean edo lehenago jaioa

Partaide kopurua: gehienez 300 patinatzaile

Korrikalari bakoitzak bere ardurapean hartzen du parte lasterketa honetan eta froga gainditzeko fisikoki forma egokian dagoela adierazten du.

Lasterketaren edizioko dortsala eraman behar da, tolestu gabe eta publizitatea tapatu gabe, gorputzaren enborrean, aurrekaldean.

Kaskoa erabiltzea derrigorrezkoa da. Gainontzeko babesgaiak gomendagarriak dira. Lerroko patinetan edo tradizionaletan (quad) bakarrik onartzen da parte-hartzea. **ERABAT DEBEKATUTA** dago makilak erabiltzea.

Dortsal-txipa aurrekaldean eraman behar da, bularrean, zenbakia eta babeslearen logotipoa garbi erakutsiz.

Sailkatzeko denbora **ordu bete**koa izango da. Lehenengo korrikalariak

harrapatutako patinatzaile guztiak ezingo dute lasterketan jarraitu. Anoetara heltzeko ondoan doan bidegorria hartu beharko dute, edota, horren ezean, lasterketaren ibilbidean kontu handiz eta korrikalariei oztopo edo kalterik egin gabe.
Harrapatuak izan diren patinatzaileak ezingo dute Anoetako Estadioan sartu sarrera nagusitik.

Donostiako 15 km-ak lasterketa herrikoia bat da, hala ere **gutxieneko oinarri fisiko zein teknikoa** eskatzen du. Ibilbidean zehar antolatzaile eta epaileak egongo dira, behar den gutxieneko teknika maila ez duten patinatzaileak kaleratzeko gai izango direnak, beste partaideei zein beraien buruei kalterik sortu ez dezaten.

Nahiz eta herrikoia izan, **lasterketa bat da**, ez paseo lasai bat. Beraz, behar beharrezkoa da patinen gainean frenatzen eta taldean moldatzen jakitea, eta karrera emandako epean bukatzeko beharrezkoa den baino bataz-besteko abiadura azkarrago batean joateko gai izatea.

Guztiz debekatuta dago bizikleten zein beste ibilgailuen aspirazioa aprobetxatzea, baita ere ibilgailu horiei heltzea, sailkapenetik at geratzeko arrazoia dela eta.

3. ARTIKULUA– IZENA EMATEA

Izen emateen salneurria: inskripzio guztiak dortsal-txipa dute barne

Lehenengo 100 dortsalak	17,00 €
Maiatzaren 1a arte	19,50 €
Maiatzak 2 - uztailak 1	21,50 €
Uztailak 2 – urriak 6	23,50 €
Urriak 7etatik aurrera	25,50 €

Izen ematea on-line egin daiteke www.15kdonostia.com web ofizialaren bidez

4. ARTIKULUA- IZENA EMATEKO DIRUA ITZULTZEA

Behin izen ematea eginda, ez da dirua itzuliko, ezta hurrengo edizioetarako gorde. halaber, izen ematea egiterakoan itzulera bermea kontratatzeko aukera dago, Urriak 6 arte izen ematearen 100% bueltatuz, eta hortik urriak 13a arte, hurrengo ediziorako izen ematea gordetzeko aukera emanez. Ezinbestekoa da bermea izen ematerarekin batera egitea, eta ez beste momentu batean. Ez da diru itzulerarik egiten. Itzulera burutzeko 15km@flygroupnet.com helbidera eskaera bidali beharko du izen ematearen titularra hurrengo datuak adieraziz: izen abizenak, partaidearen nortasun agiria eta izen ematearen erreferentzia.

5. ARTIKULUA- TXIPA ETA DORTSALA NON JASO

Dortsal-txipa Welcome zonaldean (Anoetako Estadioan, ate 27) jasoko da.

- Urriak 19, larunbata 10.00etatik 14.00etara. eta 15.00etatik 19.00etara
- Lasterketa egunean, 08.00etatik 09.00era. Zerbitzu minimoak izango dira lasterketa egunean, beraz aurreko egunean jasotzea gomendatzen dizugu nahi izanez gero hirugarrengo pertsona bat bidaliz beharrezkoa izango balitz, NANren fotokopiarekin.

Nortasun agiria aurkeztea derrigorrezko izango da, dortsala eta txipa jasotzeko.

Dortsala eta txipa erabiltzea derrigorrezkoa izango da.

Izen ematea egiterakoan, beste puntuetan dortsala jasotzeko aukera emango da. Puntu hauetan ondorengo egun eta ordutegian entregatuko dira **Urriaren 15tik 17ra:**

BMW Lurauto Oiartzun
09:00-13:00 / 16:00-19:00

PLAZA BERRI SPORT
9:30 -13:00 / 17:00-20:00

EROSKI GARBERA (San Sebastian)
10:00-22:00

EROSKI EASO (San Sebastian)
09:30-21:00

EROSKI ARCCO (San Sebastian)

09:30-21:00

ROBERS SAN SEBASTIAN
10:00-13:00 / 16:00-20:00

Aukera hau zabalik egongo da izen emate kopuru zehatz batentzako eskaeretako kupoa bete arte.

Dortsala jasotzerakoan NAN aurkeztu behar da eta hirugarrengo pertsona bat bidali ezgero, NANren fotokopia aurkeztu beharko du edo argazkia mobilean.

6. ARTIKULUA – DENBORA MUGA

Lasterketak gehienez 1h 00 iraupena izango du.

7. ARTIKULUA – DESKALIFIKATZEKO ARRAZOIAK

Lasterketaren irteeran, zirkuituan eta helmugan kontrolak ipiniko dira, eta lasterkari guztiek derrigorrez pasa beharko dute oinpeko kontroletik.

Gipuzkoako Atletismo Federazioaren epaileek kontrolatuko dute lasterketa.

Lasterkariak deskalifikatuak izango dira honako kasuotan,:

- Ezarritako kontroletatik pasatzen ez direnak.
- Ibilbide osoa burutzen ez dutenak.
- Dortsalaren publizitatean aldaketak egin edo ezkutatzen dituztenak.
- Beste lasterkari baten dortsala edo txipa eramaten dutenak.
- Aurtengo edizioko dortsal-txipa ez daramatenak.
- Helmugara dortsalik gabe iristen direnak.
- Proban izena eman ez duten lasterkariak edo ofizialak ez diren ibilgailuen laguntza edo hornidura jaso edo ematen dutenak.
- Erbi laguntza jasotzea izen eman ez duen perstona betengan edo antolakuntzatik kanpo dagoen perstsona batengan.
- Ibilbidearen mapan agertzen diren hornidura postu ofizialetatik kanpo hornitzen direnak edo hornidura ematen dutenek.
- Epaileen edo antolakuntzako lankideen aginduak jarraitzen ez dituztenak.

- Ibilbidearen barnean haurren aulkiak edo kotxeak eramaten dituztenak, baita helmugan ere.

- Haurrekin ibilbidearen barnean korrika egiten dutenak.

- Proba jarraitu ahal izango duten ibilgailu bakarrak antolakuntzakoak izango dira, eta hauek behar bezala bereizita egongo dira.

8. ARTIKULUA – HORNIDURA

Hornidura postuak egongo dira zirkuituan zehar. Eta baita helmugan ere. Kokaleku zehatzak webgunean zehaztuko dira.

9. ARTIKULUA – ASEGURUA

Antolakuntzak erantzukizun zibileko aseguru bat edukiko du, indarrean dagoen legeriaren arabera. Ofizialki izena eman duten parte hartzaile guztiak istripuetarako aseguru poliza batek babestuko ditu, baina betiere lasterketaren ondorioz gertatu bada istripua. Aitzitik, ez die erantzungo ezkutuko gaixotasunen edo, zuhurtziagabetasunen, axolagabetasunen, edo legeak nahiz araudi hau ez betetzearen ondorioz sortutako arazoei.
Bestalde, aseguruak ez ditu bere gain hartuko lasterketa gunera heltzeko bidean eta gunetik ateratakoan gerta litezkeen arazoak .

10. ARTIKULUA – OSASUN SOROSPENA

Osasun sorospen postuak zirkuituaren puntu desberdinetan eta helmugan jarriko dira.
Antolakuntzak, proba baino lehen, mediku azterketa egitea gomendatzen die lasterkariei; era berean, parte hartzaile bakoitzak bere gain hartuko du kirola egiteak dakarren arriskua.

11. ARTIKULUA – SARIAK

1. Gizonezkoak/Emakumezkoak, Domina
2. Gizonezkoak/Emakumezkoak, Domina
3. Gizonezkoak/Emakumezkoak, Domina

1.Beteranoak: Gizonezkoak/Emakumezkoak (<40 urte edo = eta 50 urte baino gutxiago), Domina
2 Beteranoak: Gizonezkoak/Emakumezkoak (<40 urte edo = eta 50 urte baino gutxiago), Domina
3 Beteranoak: Gizonezkoak/Emakumezkoak (<40 urte edo = eta 50 urte baino gutxiago), Domina

1.Beteranoak: Gizonezkoak/Emakumezkoak (<50 urte edo =), Domina
2 Beteranoak: Gizonezkoak/Emakumezkoak (<50 urte edo =), Domina
3 Beteranoak: Gizonezkoak/Emakumezkoak (<50 urte edo =), Domina

1.Beteranoak: Gizonezkoak/Emakumezkoak (<60 urte edo =), Domina
2 Beteranoak: Gizonezkoak/Emakumezkoak (<60 urte edo =), Domina
3 Beteranoak: Gizonezkoak/Emakumezkoak (<60 urte edo =), Domina

12. ARTIKULUA – IRUDI ESKUBIDEAK

Parte hartzaile guztiek lasterketan izena ematen duen momentuan araudi hau onartuko dute, eta GAFri baimena ematen diote, berak edo bitarteko beste entitateek partaidearen datu pertsonalen nahiz proban zehar euren irudiaren erabilera informatikoa egiteko.
Datu pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 lege organikoaren arabera, parte hartzaileak fitxategian jasotako datuak osorik edo partzialki aldatu ahal izango ditu. Horretarako, GAFera edo Fly Groupera idatziz egin beharko du datu hauek aldatzeko eskaera. Helbidea: (GAF) Kirol Etxea, Anoetako Pasealekua 5, 20014 Donostia. (FLY GROUP) Akarregi poligonoa 12, pab 5-20120 Hernani.
Bertan aurreikusi ez den guztia IAFFren araudiaren arabera aztertuko da.